

# Nafarkaria

• ostirala • 2001eko martxoaren 2a

**Egunkaria**

Gehigarri honetan



**Bera** • Nork bere klowna aurkitzeko ikastaroa, Europako sare baten abiapuntu

**Angel Larrea** • «Gazteluko plaza baino zerbait gehiago dugu jokoan»

## Tafallaren historia,



• MIKEL SAIZ

# euskaraz

10.000 biztanletako herri batek inoiz izan duen historiarik borobilena kalean da jada.

Luxuzko bi liburuki kontsultarako aurkibideekin, ia mila argazkirekin, Londresen lortutako grabatuekin, mila xehetasun eta hamaika bitxikeriarekin, Jose Mari Espartza tafallarraren eskutik. Hori dena euskaraz zein gaztelaniaz, bakoitza bere aletan, irakurtzeko modua ematen du Tafallaren Historiaren bildumak.





# Bera • Klownaren bila

Nork bere klowna ateratzeko ikastaroa Europako sare bat osatzeko abiapuntua izanen da

**Bai Teatrok antolatua, nork bere klowna aurkitzeko ikastaroa egingen da Beran datozen hilabeteetan. Egitasmo handiago baten abiapuntua izanen da ikastaroa, Frantziako Le Bataclown erakundearekin elkarlanean Gerz, Valentzia eta Bera lotuko dituen sarea osatu nahi baitute.**

**I**KASTAROA MARTXOAREN 24 eta 25eko asteburuan hasiko da, Berako Kultur Etxean. Denetara hiru saio izanen dira, hurrengo biak apirilaren 13tik 15era eta maiatzaren 19 eta 20an egingen dira. Denetara 44 orduko ikastaroa izanen da. Izen emateko epea martxoaren 7an bukatuko da. Ikastaroa 50.000 pezeta kostako da, eta prezio horren barnean egunero-ko bazkariak daude. Ikastaroaren arduradunek, gainera, kanpotik etortzako guztiei lotarako leku bilaketa erraztuko die, parte hartzaileek hala nahi izanez gero.

Ikastaroan parte hartzeko ez da antzerki esperientziarik eskatzen, eta Euskal Herrian elkarbizi diren hiru hizkuntzak erabiliko dira horretarako, alegia, euskara, gaztelania eta frantsesa.

## **Nouveau klown-a, inprobisazioa oinarri**

Ikastaroa adierazpen ekimena da, ez pailazoarena egiten ikasteko, nork bere baitako klowna argi-

tara ateratzea baizik. Nouveau klown jøerako klowna izanen da ikastaroan landuko dena. Ramon Albistur izanen da tailerraren arduraduna, eta bere aburuz, «klowna inprobisazio-

an oinarritzen den aktore jokorako bidea ematen du, oraina, zehaztasuna, irudimena eta ikusleekin harremanetan paratzeko tresna egokia da». Ikastaroak hiru emanaldi tarteka-

tzen ditu: elkarrekin egindako jokoak, agerturiko inprobisazioa eta aktorearen baitan agertutako pertsonaien arteko harremanen baitan, eta klown jokoaeren erregistroen baitan zer gertatzen den asmatzen lagunduko duten hitz emanaldiak.

Albisturren aburuz, «pertsona bakoitzaren emozio-baliabideak, espresibitatea eta irudimena sekulako altxorra izaten dira, eta altxor hori, aktorea prestatzeko, edo edozein pertsona bezain bereziak diren pertsonaiak sortzeko

zaindu eta garatu egin behar da».

## **Egitasmo handiago baten baitan**

Ikastaro hau egitasmo handiago baten baitan dago. Ramon Albisturrek kultur elkartrukea, heziketa eta sortze lan artistikoa garatzen dituen Herria eta Antzerkia egitasmoa sortu du, Barbotegiberri antzerki ekoizlearekin elkarlanean. Egitasmo horren baitan dago, halaber, «Godo-ten esperoan» antzeslana prestatzea. Euskara hutsezko bertsioa egingen dute, eta dagoeneko Juan Gartzia egokitu du Samuel Beckettten testua. Antzeslanaren sortze prozesurako baliozgarria izanen da ikastaroa.

Ramon Albistur donostiarrak urte mordo darama Bidasoaldean lanean antzerkigintzan. Bai Teatro taldearen sortzailea, hainbat lanetan parte hartu du. Frantziako Lombeze hiriko Le Bataclown erakundeko antzerki irakaslea da, eta hortik erakunde honekin batera, eta Valentziako berte antzerki talde batekin elkarlanean sortutako egitasmoa. Oraindik egitura-tu gabe dagoen arren, bi gune horiek Berako herriarekin batera, klowna ikasteko gune bihurtu nahi dituzte, eta hiru erakundeen arteko harremanak sendotu.



Klownaren erreferentzi gune bihurtu nahi dute ikastaroaren bidez Berako herria. • XOUSE SIMAL

→ Jon Abril

## *Massilia a Caesare capitur*

AITOR TXARTERINA



**A**spertzen denak irakurtzeari utz diezaioke, gogoak hala eskatzen badio. Nihaurrek ez dizut ez barkamen ez eta ifernuratze txartela emanen. Jakina denez, denok dugu gairen bat laketzen gaituena, berte hainbat epel sentiarazten eta, finitzeko, zenbait asperdura-gorroto-kezkazahar. Honelakoak gaituz gizaki gizajoak. Antzerkia da ene aipua, berriz ere. Jakinaren gainean kokatu zaitut. Sorpresarik ez.

Idazle eta itzultzaile ezagun eta lagun batek bota zuen lehengo batean: «Euskal kulturak [Nafarroaz ari zela uste dut] sortzen dituen ekoizpenak euskaldun populua bere egin beharko lituzke». Antzerkiak ari girela, eskeintza, paradak, egitura, aurrekontu, intere-

## Euskal antzerkiak, bertze behin

sekin tronpatuko gira aztertzen hasi bezain fite. Nafarroaz ari nizela, ilun ikusten dut euskal antzerkiaren oraina. Oro har Nafarroan antzerkiaren egoeraren egiturari behatuz gero baikorrena kopetilun imintzeko manerakoa izaki, pentsa euskaraz aritzen dena. Herri garatugabeko emakume txiro batekin alderatzen dut gure antzerkiaren oraina; aitzin egiteko maingua.

Ez da maiztasun finko batez programatzen, kolpeka baizik. Asteburuak ez omen dira euskaldunondako egoki, ez behinik behin Iruñean (NAEn ez; Gaiarre Saturnon dugu... Zer erranik ez gainerako herrietan). Honela ez dugu ohitzen balizko bezeroa, ez dugu erakartzen, ez diogu eskeintzen, ez ilusionatzen, are

gutxiago harritzen, hezten, maitatzen. Eta zerrenda beltzaren hondar atala: ez da euskaraz ekoizten, merkaturik ez dago eta. Noski, zerbait egitekotan, euskaraz eta gaztelaniaz plazaratzen da. Neurri hau, diaglosis virus-ari esker, euskararen kalterakoa da. Norberak azter beza aipamena.

Alabaita, basamortu orok du bere oasia. Gurea non den ez niz erratera ausartzen. Naturak begiak eman zizkigun, baita belarriak ere. Entzun eta ikus dezagun gure inguruko bazterrek sortzen duten harrabotsa. Bertatik jalgiko zaigu euskal antzerkiaren taupada. Ertzetik, zokotik, urrutitik. Baina jalgiko.

Nafarroa Garaiaz ari natzaizu, prefosta.



# Arizkun ● Artisau likoreak

Zazpi likore mota egiten dituzte Ordoki auzoan dagoen lantegian

1994. urtean hiru lagunek pentsatu zuten bideragarria izango litzatekeela Baztanen artisau likoreak egitea. Gaur egun 35.000 litro patxaran baino gehiago ekoizten dituzte.



Baztango likoreria. ● RAKEL GOÑI

ARIZKUNGO ORDOKI AUZOAN industrialdea egin behar zela jakin zenean, Jose Manuel Ibañezi eta bere bi kideei toki aproposa iruditu zitzaizen likore lantegi bat jartzeko. Era berean, inguruko lurretan behar ziren lehengaiak erraz aurki zitezkeen: matxakarana edo basarana, patxaka (sagar basa), kiwia, udare basak eta abar. 1995ean dena prest zegoen lanean hasteko; hasiera horretan produkzioa oso txikia zen arren, kalitate handiko artisau likoreak egin zituzten. Helburuen artean, Nafarroako iparraldean galdu ziren likoreak berreskuratzea zegoen. Patxarana da gehien ekoizten dena, baina honek erraztu du merkatuan beste likore motak sartzea. Lehenik, feijoa izeneko fruta tropikalarekin likore bat egin zuten; horren ondotik, sagar basa edo patxakarekin egindakoa sortu zuten. «Nik beti neukan buruan sendabelarrekin edariren bat

egin behar nuela; jendeak ostatuetan kamamila eskatzen du askotan, eta horri anis ttantta bat botatzea nahi izaten dutenez, bai menta bai kamamila likoreak egin nituen», kontatu du Jose Manuel Ibañezek. Gero, Jose Manuelek haurtzaroan erregali-

za anitz maite zuenez, horrekin ere edaria sortu zuen. Azkenik, likore guztiekin egindako nahasketarekin Mandragora izeneko edaria sortu zuen.

Bi langilerekin hasi zuten produkzioa Ordoki likoreetan, eta gaur egun zazpi inguru dabilta

lanean. Mendietan hartzen diren fruitu gehienez ijito familia batzuk arduratzen dira garaia helitzen denean. Produktuaren itxura anitz zaintzen da Ordokin. Likore bakoitzak bere botila berezia dauka, eta batzuek inguruarekin zerikusia duten izenak hartzen dituzte. Artisau erara egiten dira likore guztiak, eta prozesu osoan makina bakarra erabiltzen da, botila likorez betetzen duena.

## Sorginak eta kalabazak

Behin lantegian Nafarroako Gobernuaren dei bat jaso zuten, Fitur feriara eramateko likore bat egiteko. Hasierako saioan, 25 graduko likorea sortu zuen Jose Manuelek, baina ez zen ardura-dunek nahi bezain fuertea, eta, gainera, botila ere ez zitzaizen gustatu. Bigarren aldian, 45 graduko likorea buztinez egindako sorgin batean aurkeztu zuten, eta hura izan zen ferian opari gisa banatu zena. Geroztik mota guztietako likoreak sartzen dituzte sorginetan. Azkeneko produktuen artean, Donejakue bidetako kalabaza bat dago, arestian erromesek eramaten zutenaren antzekoa, buztinez egindakoa.

Hasiera batean Nafarroan bakarrik aurki zitezkeen Ordoki likoreak; denboraren poderioz, Euskal Herriko toki askotan eta baita Bartzelona, Madril eta Cadizen ere aurki daitezke likoreok.

→ Rakel Goñi

## herri aldizkariak

Edurne Elizondo

## Agian enpresak hogeitun urte

Heletako Agian enpresak hogeitun urte bete berri ditu, eta hori dela eta, txoko bat eskaini dio Herria astekariak bere azken zenbakian: «1981ean Agian enpresa sortu zen Heletan Santa Maria etxeko xokotan gasna egiteko. 5 lagun elgarretaraturik, laborari multxo batek deliberatu zuen ardi esnea saltzea, sasoin hartan ehun mila pinta pasata zituzten. Lau urte berantago 1985ean lehen gasnategia eraiki zuten Luhusoko bidean oraiko tokian, jadanik hiru ehun mila pintaz goiti ziren, denbora berean ari ziren aterbe saltzen

beste enpresa batentzat: gauza guztietan bezala emeki emeki bere xiloa eginez, ezagutaraziz hedatu zen Agian-en fama. 1989an egin zuten gasnategiaren sahetsean hangar egiteari buruzko bastimendua, hor sortu zen Baigura hangar egiteko sor marka, berexen zuela esnea burdinatik, artean esnea iragana sei ehun mila pintaz goiti. Langileak 15 ziren horietan sei burdinategian. Laster gauzak kanbiatuko dira, guziak goiti buruz doatzila, anartean handitua izanen da burdinategia Geroari izen enpresa sortuz».

«Gaur egun 440 tona gasna egiten dira bi miliun pinta pasa esne biltzen dituelarik 83 laborarietarik, 21 langile ari dira hor lanean. Hogoigarren urtekari nahi izan du Etxeleku buru den jaunak, bere hastapeneko kideen artean, bai eta langile, esne saltzaile, gomit andana baten erdian ospatu urte muga hori, ohi den bezala jaun erretorrak benedikatu ditu toki berriak guzier bisitarazi aintzin». Geroari begira hainbat asmo ditu Etxeleku jaunak Agian enpresarentzat: «Merkatu berri batzuri buruz goatzi», erran zuen.



Xabier Larraburu

## Apologia

Gaur nire Urrezko eta Bolizko Dorretik jaitsi naiz, pipa ortzetan, bufanda zuria airean, nire pentsamendu sakonetan murgildurik. Eta, Burdinazko Ate nagusia zeharkatuz, nire lorategi pribatutik harantzago dagoen gizaki arruntentzako lurraldean sartu naiz. Eta Larraburu-Eneko Ate honetan egunez eta gauzez nire adierazpenen zain dauden kazetariengana hurbildu naiz orduan. Eta bekario nekazekin hauek beraien grabagailu zein kamera prest zituztela esan didatenean, zera esan diet: «Gaur bai. Gaur badituzte adierazpen batzuk egiteko. Gaur nire iritzia eman nahi nuke». Eta hasperen egin dute, eta bekario gazte eta ederraren saldoak harriturik begiratu nau, eta honela jarraitu dut: «Osasunaren azken garaipena ez zait batera gustatu. Ez horixe. Nik, gaur, Lotinaren alde egin nahi nuen, kosta ahala kosta, 2-0 galduta ere, eta orain emango du ez zaidala batera kostatzen, lausenguak garaipenarekin batera doazela eta nardagarrienei urrezko dominari haginkada bat eman nahi didala irudituko zaie. Dena den, eta berriz esanen dut, nik Lotinaren alde egin nahi nuen gaurkoan, eta memento txarrean egin ere. Gizona gizonarentzat otso bihurtzen den memento horretan. Zaleek, labana eskuetan, lepoen bila ateratzen diren mementoan. Ez da posible izan, irabazi baitzuten, baina tira, zera esango dut, dena den: Iruñean futboleko bizi dugun egoera hau baino hoberrik ez dugula sekula santan ezagutuko. Taularen azken postuan gaudela, bai, baina duintasun osoz. Futboleko sekula gertatzen ez den moduan, hemen guztiek bere arduraren zatiari ongi atxikiak daudela, inork ez diola besteari galeraren ardura leporatzen, Osasunako inork ez duela ez eta hitz txikiena ere bota gainontzeko talde, jokalarik edo zuzendarien kontra. Eta futbolaren kultura bitxi honen ardura, hein handi batean, Lotinarena dela. Errespetua eta duintasuna irakasten arduratu baita. Eta hori da esan nahi nuen guztia». Bekario saldoa zur eta lur utzi dut. Elur maluta txiki batzuk hasi dira jausten orduan, eta haize hotza areagotu da. Sasikazetariak Raxoiri eta genomari buruzko galderak egin dizkidate, Komandanteordearen martxari buruzko nire iritzia eskatu didate, eta balizko Nobel sariari buruz, baina ni, entzungor, etxeratu naiz «Munduak jakin dezala» pentsatuz. ●





# Tafalla euskaraz

solaia



Jose Mari Espartzak

Jose Mari Espartzak hamaika xehetasun eta ia mila argazki bildu ditu bi liburukitako lan honetan

**Tafallako herriak badu bere historia idatzia. Eta ez nolanhikoa, gainera. Xehetasun txikiak ere jasotzen dituen bi liburukitako obra prest dago jada. Tafallako herriari zuzendu nahi dion lan hau Jose Mari Espartzak tafallarraren bost urteko ikerketaren ondorioa da. Txalaparta argitaletxearen eta Altafaylla kultur elkartearen luxuzko presentazioaz gain, gaztelaniazko zein euskarazko bertsioak idatzi ditu.**

☺☺☺  
 Bere aitona-amonekin zituen solasaldiak zirela-eta piztu zitzaion historiarako grina; hala dio Jose Mari Espartzak. Hogei urte baino gehiago pasatu dira *Un camino cortado* gerrari buruzko liburua prestatzen hasi zela. Kostunbrismoa ere aztertu du, betiere Tafallan kokatuta gehienbat. Azkeneko bost urteak *Tafallaren historia* liburua prestatzen eman ditu: «Aurtengoak izan dira bost urte hauetako nire lehenengo inauteriak, eta nahiko parrandazalea naiz!». Hala ere, horrelakoak bizitzan behin egiten direla eta mereziko duela espero du Espartzak.  
 ☺

**O**BRA HAU JENDEARENTZAT EGINA DAGO, Tafallako herriarentzat. Horregatik une garrantzitsuez gain, eguneroko bizitza nolako zen islatzen saiatu naiz, gaurko herritarren arbasoak nola bizi ziren islatzen, hain zuzen ere», dio Jose Mari Espartzak idazleak. Hori lortzeko, xehetasun asko aztertu eta azaldu beharra zuen, eta horrek ikerketa lan gogorra ekarri dio.  
 Tafallako Udaleko artxiboak, elizakoak zein eskualdeko epaitegikoak, Iruñekoak eta pribatuak ere begiratu ditu Espartzak. «Baina, batez ere, azken mendeko datuak jasotzeko ahozko tradizioa erabili dut artxibo eta dokumentuez gain, paperak baino askoz aberatsagoa baita, ñabardura gehiago ditu. Oraingo familietan, aitona-amonek oraindik Karlistaldien garaiko kontuak gogoratzen dituzte». Historiagilea ez denez, historiaren akade-

mizismotik urrundu nahi izan duela dio: «Historia liburu hau jendearentzat da, eta horregatik, erraza izan dadin saiatu naiz, eskoletan kontsulta liburu bezala erabiltzeko ere pentsatuta baitago». Horretarako, kronologikoki ordenatuta dago, eta kontsulta errazteko aurkibideak ere baditu, egunez egunekoak, izendegia, gaikako aurkibidea, kronologikoa... Bigarren liburukia aurkibideek osatzen dute gehienbat. Izan ere, praktikoa ere izan nahi du lanak, eta edozein gairi buruz hitz egitean informazioa nondik lortu den esaten du, gai zehatz batean sakondu nahi duenak eskura izan dezan.  
 Eguneroko gauzak kontatu nahi zituela azpimarratzen du Espartzak. Horregatik, Tafallako familia xumeek ere badute lekua liburu honetan, ez bakarrik dirudunek eta botere-tsuek: «Esanguratsua zen edozerk merezi

«Lan hau Nafarroarena ez ezik Euskal Herria osoaren ondarea da, hemendik aurrera ezinbesteko bibliografia»

zuen liburuan egotea, herriarentzako eraginik baldin bazuen». Horrela, eguneroko bizimodua eta ohiturak islatzen ditu liburuek: ezkontzak nolakoak ziren, hiletak, sorginkeria nola bizi zuten eta abar. Asmo berarekin, kantuak eta gertaera bitxiak ere jasotzen ditu. Xehetasunek gertutasuna adierazi nahi dute, eta irudiek ere bai. Hori dela eta, ia mila argazki jaso ditu liburuan, baita grabatuak ere: «Londrestik ekarritako grabatuak lortu ditugu, eta horrek Euskal Herria osoarentzako ondare kultural bilakatzen du liburua, ez Nafarroarentzat bakarrik». Bestelako historia oso hotza dela uste du Espartzak.

**Tafallaren lehen historialaria euskaltzalea zen**  
 Jose Beltran apaizak 1920. urtean Tafallaren historia idatzi zuenetik laurogei urte pasatu



## Lehenengo aldiz euskaraz 5

TAFALLAREN HISTORIA GAZTELANIAZ EZ ezik euskaraz ere argitaratzeko erabakia apustu gogorra eta harro egoteko arrazoia da Altaffaylla kultur elkartearentzat. Eredu bezala egin nahi izan dutela azpimarratzen du egileak: «Nafarroan bereziki gaur egun euskarak dituen trabak ikusita, eta jartzen dizkioten oztopoen gainetik, euskaraz argitaratu nahi izan dugu lan hau, nahiz eta zona vascofona delakotik kanpo egon eta inolako diru laguntzarik jaso ez, besteentzako eredu gisa, eta euskararen aldeko apustu bat eginez». Honela, euskarazko bertsoak diru etekinik lortuz gero euskararen alde ematea erabaki dutela esan digu Espartzak.

Liburua luxuzko bi liburukitan argitaratu dute, bai euskaraz eta bai gaztelaniaz. Tafallarrek eskura dute beren historia modernoa.

MIKEL SAIZ

dira. Hura bere garaiko obra zen bezala, Jose Mari Espartzak berearen gaurkotasuna azpimarratu nahi du, «gaurko gizartea demokratikoa den bezala, obra hau ere hura baino demokratikoagoa da: adibidez, lan horretan emakumeek ez zuten lekurik, eta honetan bai». Gainera, lan hura, aurrekoak bezala, erlijioan eta mitologian oinarritzen zen gehienbat.

Beltranen lanaren aurretik, Tafallari buruzko beste hiru obra ere badira: Nicolas Giralek XX. mendearen hasieran egin zuena, XVIIIan Fray Joachimek egin zuena eta 1682an Francisco Erasok idatzi zuena. Liburu hauetaz gain, Jose Maria Jimeno Jurioen XV. mendari buruzko lana kontsultatu behar izan du Espartzak, baita Tafallari buruz argitaratutako artikulu guztiak ere.

1682. urtean Francisco Erasok Sevillan argitaratu liburuan, tafallarrentzat euskaraz zuen garrantzia azpimarratu zuen. Hura euskaltzalea zen, eta euskara hizkuntza landu bat ez zela esaten zutenak kritikatu zituen liburuan, eta historia bat idazteko bezain landua bazela defendatu zuen: «Liburu honekin, euskarak horretarako balio duela frogatu da 300 urte geroago».

XVII. mendearen bukaeran ere Tafallan euskara bizirik zegoela azaltzen du liburuan Espartzak:

«Orduan Marcillako gizon bat hemen ezkondu eta Udaleko lanpostu bat eskatu zuen, eta herritarrak kexatu egin ziren hark herriko hizkuntza ez jakitean, ezingo zuelako lana behar bezala bete. Hori 1699. urtean gertatu zen; beraz, garai horretan oraindik euskara bizirik zegoen Tafallarren artean».

### Kokapen estrategikoa

Muga linguistikoa izateaz gain, bere kokapenak beste arazo batzuk ere ekarri dizkio Tafallari, mendiaren eta erriberaren arteko muga baita: «Tafalla kuarteltzat hartzen zuten batzuek eta besteek, iparraldeko basakoiak hor mantentzeko, bai goduek, bai arabiarrek eta baita XIX. mendeko armadek ere. Leku estrategikoan dago, defentsarako aproposa. Hemendik armada guztiak pasatzen ziren, eta horrek min handia egin zion herriari, oso zigortua izan zen». Horregatik asko sufritu zuen Nafarro-

Ur eskasiak eta kokapen estrategikoak baldintzatu dute Tafalla historikoki

ako konkistan. Konkista honen gogorkeriak harritu egin duela dio Espartzak, ondorio izugarriak izan baitzituen Tafallarrentzat ez ezik (defentsa guztiak galdu zituen), Nafarroa guztiarentzat ere.

Tafallaren historiako gauza azpimarragarrien artean, Erriberriekin duten lehia dago. Tafallatik igarotzen den ibaiek ur gutxi izaki, eskasia izaten zen maiz, eta horrek herriaren izaera baldintzatu eta Erriberriekin halako lehia pizten zuen. «Horren ondorioz, bi herrietan eraiki zituzten jauregi izugarriak, eta ez da oso normala 5 kilometroren barnean halako bi eraikuntza egotea; Erriberrikoa oso ezaguna da, baina Tafallak ere antzeko bat izan zuen bere garaian».

### Herri demokratikoa

Tafallak beti izaera nahiko demokratikoa izan duela azpimarratu nahi du Espartzak, «herri honetan ez baitzegoen latifundio handirik, nahiko berdinzaleak ziren; baita sozialki errebindikatiboak ere». Aro Zaharreko bizimoduak harritu duela dio, Tafallan jendearen artean nolabaiteko oreka baitzegoen: Ondare komunak (lurra, egurra eta abar) nahiko modu berdinean banatzen ziren, eta klase baxuagokoak ere duintasun handiko jendea ziren hemen. «Horregatik izan ziren Karlistaldiak hain gogorrak; hemen oso finkatuta zegoen bizimoduari erasotzen ziotela ikustean eta betiko mundua erortzear zegoela ohartzean, hori defendatzeko beharra sentitu baitzuten tafallarrek ere».

Tafallaren historia lanak ikusmin handia sortu du Tafallan, ez baita normala 10.000 biztanletako herri batek honelako obra izatea: «Nahiz eta gaur herri txiki bat bezala ikusi Tafalla, historian garrantzi handia izan du Nafarroa osoan: hemen 3.000 biztanle zeudenean, Iruñean 10.000 inguru zeuden, ez zegoen halako diferentziarik». Gainera, Tafallako historia honek Tafallarrentzat ez ezik Nafarroa osoarentzat ere garrantzia baduela azpimarratu nahi du Espartzak, «hemendik aurrera Nafarroako historia idatzi nahi dutenentzat ezinbesteko bibliografia bihurtuko baita».

→ Arantzazu Zabaleta



Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

## Itsuago ausartago: putze izan eta uzkerra uste (II)

Inauteri garaia pasaturik zaigun honetan, mozorroaren aurpegitik estalkia altxatzen saiatuko gara gaurkoan ere, pasa den astean Azcona-Gortari tandemak ateratako liburu berriari buruz hasi ginen iruzkin laburrari amaiera emanez.



**N**avarra y el nacionalismo vasco entsegu historiko-politiko honek ez du bibliografik, edonor zur eta lur utz dezakeen gauza. Helburua irakurlea ez unatzea dateke, alabaina bukaera aldera erabilitako iturrien berri jasotzeak ez ohi du min handirik ematen, lasai aski irakurri gabe utz daitekeelako. Bibliografia ematea errefusatu, berriz, are nekagarriagoa den orri azpiko oharren sistema aukeratu dute. Esan gabe doa oharretan bibliografia ezin laburragoa dela, hala nola ezin zuzendua zein atxikiagoa ere.

Zinez harrigarri asko gertatzen da Nafarroaren eta aber-tzaletasunaren arteko harremanak ikertzen dituen lan batean, areago noizkoa den begiratuta, Chuecak eginiko tesia ez aipatu ez erabili izana. Euskal Herriko historia egiten dutenean, XIX. mendeko uste-en gainean eraikitzen dute, honen akatsen errudun egungo ikerlariak egin; alabaina, ez dute jasotzen Euskal Herriko Unibertsitatean komunzki irakasten dena, hau da, eta adibide bakar bat plazaratzearren Agustin Azkaratek antzinate berantiarreko *Wasconia*-z dioena. Bagaude, zoritxarrez, isilaraztea baino ezjakintasuna dela nagusi. Sikiera Elorz aldeko Buzagakoaren berri izan balute!

Arestian PPK Madrilin egin bezala, egileek ez dute altxamendu faxista garbiro deitortzen, bai, ordea, 36ko uztail aitzineko hilabeteetan jeltzaleek sortu giro iskanbilatsua. Gerraren bitartez faxistek eginiko segada garbitzailea ez da inon agertzen, eta badirudi gerrarena, besterik gabe, gauzak bere tokian jartzeko inflexioa beste-

rik ez zela izan. Diktadura frankistaz ia deus ere ez, nahiz Gortari jauna *La transición política en Navarra 1976-1979* izenburuko liburuaren egilea izan. Estatutuaren inguruan irakurketa ofizialistei guztiz atxikia agertzen zaizkigu, espero zitekeen bezalade, eta ez dute Jimeno Jurio-ren ikerketarik aipatzen. Bigarren errepublikako alderdi nafarren zere-ntzaren egiten dutenean aipatzen duten talde aber-tzale bakarra ANV da, eta horixe sei lerro-tan soilik. Prentsa jeltzalea aipamenetan baizik ez da agertzen, eta bakarrik *Napartarra*. Jeltzale nafarren ezabaketa hain da lotsagarria ezen margolariez mintzo direnean, Ziga jeltzale agertzen badute ere, ez dute berdin egiten Manezaundirekin, haientzako Zubiri soila dena.

Honetara iritsirik, literatura nafarra arras kaltetuta ateratzen zaigu, euskarazkoa zein erdarazkoa. Euskaraz eginiko literaturaren berri ez da inon atzematen, eta gauza dira XIX. mende bukaerako eta XX. mende hasierako literatur lehiaketen berri ematerakoan, Euskara elkarteak, Euskal Esnaleak, Euskararen Adiskideek eta bultzaturiko lore joko eta sariketak isilpean oinperatuta, Pedro Gorriren *Cancionero popular navarro*-z mintzatzeko, idazle bakar bailitzan. Ez da ha-




rritzekoa, tamalez, liburu osoan berrina euskarari eman dioten trataera ikusita. Batek baino gehiagok bere burua ikus lezake egileek diotenean: «Buena parte de los campesinos vascoparlantes gustaban de que sus hijos aprendiesen español como forma directa de triunfar profesionalmente en las capitales de provincia llegando a obligar a los maestros a que prohibiesen a sus hijos el uso del euskera en la escuela y fuera de ella», eta orripeko oharrean: «Suele

achacarse a Franco el retroceso masivo del euskera, y es bien cierto que bajo la dictadura franquista esta lengua sufrió notable involución. Pero cuando el vascuence pierde terreno notablemente es en el siglo XIX, bajo los impulsos del liberalismo, centralista y uniforme (...) Claro está que narramos un retroceso en aquellos sitios en los que en el pasado siglo aún se practicaba el vascuence. Tampoco hay que hacerse eco aquí de esas tribulaciones y teorías de taberna que vienen a afirmar que el euskera se hablaba aún en el siglo XIX desde el Pirineo al Ebro amén de la Rioja y norte de Huesca. Esta aseveración produce risa, pues el uso de esta lengua en Navarra quedaba circunscrito al ámbito montañoso». Ezjakintasuna ausarta da, ausarta denez. Kitto.



panpilonia zirkus

Pello Argiñarena



Militarren presentzia Iruñean nabaria da oraindik • MIKEL SAIZ

## Kaki kaikuak

FELIPE II. A ERREGEAK HAREN inperioa babesteko XVI. mendean Iruñeko Gotorleku-a eraiki zuenetik militarrek beti egon izan dira Iruñean. Tiro praktikak egiteko eta armak gordetzeko erabiltzen zuten Ziudadelako eremua. Egun, Bolborategian eta Armen Aretoan kultur ekitaldiak antolatzen dira.

Pio Barojak hauxe utzi zuen idatzita behin galoien jabeek: «Militarrak ezin dira zibilizatu. Militar izateari utziko liokete». Horregatik agian, gizarte osoa haien kuarter nagusi bihurtu dute historian zehar. Armadak indarraren bitartez bere menpean hartuta zuen gure metropolia herri txiki bat besterik ez zenean. Erdi Aroan harresien bidez inguratu zuten hiria etsaien erasoei aurre egiteko. XIX. mendean hasi ziren botatzen, eta tente dirautenak, egun, Udalarenak dira.

Garai hartan bertan San Cristobaleko fortea eraiki behar izan zuten karlistak atzera botatzeko. Bertatik Iruñea bonbardatzeko arrisku bizia zegoen. Badaezpada ere, Alde Zaharrean bi tokitatik begiratzen zitzaion mendi puntari: batetik, San Zerningo elizan dorre berezi bat altxatu zuten; bestetik, egun Descalzos karrikan dagoen iturriaren atzean La Velena izeneko etxeartean kanoi bat zegoen. Ezkabamendiko gailurrera tiro egiteko prest. Gerora saiatu izan da Udala pasabide es-

tu hori zabaltzen, baina auzokideek ez dute iturria lekuz aldatu nahi. Urteak dira ur txorrotarekin lo hartzen dutela.

Gerora, espetxe bihurtu eta azken urteetan oilaskoak hazteko bakarrik erabiltzen zuten, lan horretara behartzen zituzten soldadu xeheak oldartu ziren arte. 90eko hamarkadan joan ziren fortetik militarrek. Mendi magaletik berriz ere hiri barnera etorri gogoratuko dugu Aita Moret kalean dagoen Gobernu Militarrek urte luzez Erregeordeen jauregian izan zuela egoitza. Bertan matxinatu zen Mola jenerala 36an. Kuarter nagusia, berriz, Aitzoango herrian egin zuten, 1965ean. Bertatik mendian suteak eragiten oso trebeak dira piromano kakiak.

Militarrak, gizartetik at euren neurriko gizarte propioa antolatzen saiatu dira betidanik. Ospitalea atondu zuten mende hasieran Santo Domingoko aldapan. Kooperatiba sortu eta etxebizitzak eraiki zituzten Armadaren etorbidean. Igerileku propioak dituzte Antoniuttiko parkean eta, oraindik ere, zenbait lursailen jabetza haiena da. Besteak beste, Intendentziako orubea 600 milioi pezetaren truke saldu diote Udalari.

Iruñean kaki koloreko artaldean egon nahi ez duten ardi beltzak franko dira. Haien indarra apaltzeko ez da bromuro eraginkorrik oraindik asmatu.

Ziria

• Motxorrosolo •

## Anbiguotasuna


**P**OLITIKARI PROFESIONALEN KIROLA DUZU ANBIGUOTASUNA. Hitz jokoak, ele bihurritzeak, erantzuna saihesten du, bidea ixten dio kritikari. Zenbait ekintzak, berriz, ez dute anbiguotasunerako tarterik uzten. Hartara, fedea du dena ordezkatzan.



Angel Larrea

GAZTELUKO PLAZA ERREFERENDUMAREN ALDEKO

# «Gazteluko plaza baino zerbait gehiago dugu jokoan»



«Hiritarrek udal politikan parte hartu behar dute. Are gehiago, Udalak hagitik kontent egon beharko luke hamar edo hamabost mila hiritar iritzia emateko prest daudelako»

**Iruñeko Gazteluko plazan lur azpiko aparkalekua egin nahi du Udalak. Gazteluko plaza «euren etxeko egongela» dela uste dute iruindar askok; eta, horregatik, horietako batzuek plataforma osatu dute, hiritarrek, erreferendum bidez, gai honen gaineko iritzia eman dezaten.**

ANGEL LARREA ERREFERENDUMAREN aldeko plataformako kide dugu. Gazteluko plazaz ari denean, argi uzten du biziki maite duen plaza dela.

#### ■ Zer da zuretzako Gazteluko plaza?

Alde Zaharreko auzokidea izan naiz, eta Gazteluko plaza izan da hiriko gertaera handien topagunea: dantzaldiak, paseoak, lagunekin egoteko lekua... Eta orain Sanduzelain bizi naiz, eta plazarekin dudana harremana edozein iruindarrak izan dezakeena da. Gazteluko plaza besta eta protesta gunea da. Iruñeko egongela da.

#### ■ Zer nolako plataforma da zuena?

Udal arazoekin kezka duten hiritarrek osatutako plataforma da. Herri mugimenduko jendea dago bertan, alkate eta zinegotzi ohiak, baina baita auzokide-

ak besterik ez direnak ere. Plataformak ez du loturarik inolako alderdi politikorekin, arazo honen mota guzietako hiritarrei eragiten baitie.

#### ■ Zer nahi duzue?

Hiru helburu nagusi ditugu. Batetik, lan txostena geldiaraztea nahi dugu, iluna izan baita. Bigarrenik, beharrezko informazioa eman eta gero, eztabaida publikoa egitea nahi dugu. Eta hirugarrenik, alternatibak mahai gainean, herriak erabakia hartzea nahi dugu. Horrelako erabaki bat ezin dute alkateak eta lau teknikaririk hartu. Iruindar guzietatik dagokigu gaia.

#### ■ Dena dela, hemen ez da erreferendumik egiten. Ez duzue uste zuen eskaera ez dutela aintzat hartuko?

Gazteluko plaza baino gehiago dugu jokoan. Arazo urbanistikoaren gibelean udal politika

egiteko eredia dago. Lehen aldia da milaka iruindarrek halako eskaera eginen dutela eta erabakia hartu nahi dutela lau urte itxaron gabe. Hiritarrek udal politikan parte hartu behar dute. Are gehiago, Udalak hagitik kontent egon beharko luke hamar edo hamabost mila hiritar iritzia emateko prest daudelako.

#### ■ Zenbat sinadura behar dituzue herri kontsulta ahalbidetzeko?

Udalaren araudiko 65. artikularen arabera, hiritarren %10ek hala eskatuta, Udalak erreferendumerako deia egiten ahal du... Errolda eguneratua eskuratu behar dugu jakiteko zehazki zenbat hiritarren sinadurak behar ditugun, baina, guti gorabehera, hamabost mila sinadura izanen dira.

#### ■ Baina, sinadurak bilduz gero, Udalak halabeharrez egin behar du erreferendum?

Artikuluak dio «Udalak egiten ahal du» eta ez «Udalak egin beharko du»; baina kontsultatu ditugun zerbiztu juridikoen arabera, artikulu horrek Udala behartzen du. Bestela, ez luke logika handirik izanen %10 hori ezartzeak. Kopurua zehazten bada, horrek erran nahi du zenbateko horrek behartzen duela.

#### ■ Ez dakit nik Udaleko Gobernu taldea iritzi berekoa izanen ote den.

Erreferenduma egiten ez bada, artikularen izpiritua faltsutuko dute. Gainera, hiritarren %10en sinadura eskatzea astakeria da. Portzentaje hori jarri dute eskaera egitea lor ez dezagun. Absurdua da Nafarroako Parlamentuan herri ekimen legegile bat tratatzeko 7.500 sinadura behar izatea eta guk hamabost mila behar izatea. Baina gaizki aterako zaie, sinadurak bilduko ditugu.

#### ■ Eperik baduzue?

Legeak ez du eperik jartzen. Sinadurak lortzen ditugunean, orduan emanen dizkiogu Udalari erreferenduma egin dezan.

#### ■ Legeak ez du eperik jartzen, baina ez bada deus egiten, lanak sanferminen ostean hasiko dira.

Bai, noski. Horregatik arin ibili behar dugu. Martxoaren 17an entregatu nahi dugu lehen sinadura sorta. Giza katea eginen dugu udaletxeraino, Gazteluko plazari bira emanez. Hori lehen fasea litzateke. Bigarrena Aste Santua baino lehen egin nahi dugu. Eta ez dakigu beste fase bat egin beharko ote dugun. Erronka handia da hainbeste sinadura biltzea horren denbora eskasean.

## soslaia

Angel Larrea, mende erdi egin duen iruindarra, Pellejeria karrikan jaio zen. Estafetan bizi izan zen eta, 25 urteren buruan, Sanduzelaira bizitzera joan zen. Hala ere, Gazteluko plaza «bere etxeko egongelatzat» du. Egun Lanbide Heziketako irakaslea da Bideko Amabirjina institutuan.

Buru-belarri ari da Larrea erreferendumaren aldeko sinadurak biltzeko kanpaina. Sinadurak biltzeko mahaiak paratzen dituzte larunbatetan Alde Zaharreko bi merkatuetan, Gazteluko plazan eta bi hiperretan, eta Sadarren ere bai partida dagoenean. Bestela ere, sinatu nahi duena Aldapa kaleko Auzo Elkartera joan daiteke, astelehenetik ostiralera, 18:00etatik 21:30era.

Sinadurak biltzeko kanpaina egiteko, dirua behar da, eta plataformakoez dute sobera. Kontu korrantea dute Nafarroako Kutxan: 2054 0072 45 912741918.7. Gainera, Auzo Elkarreak egin lehen kontzentrazioa dela-eta hiru lagun isuna jarri diete, 50.000 pezetatik milioi bat bitartekoa.

#### ■ Plataforma aparkalekua- ren kontrakoa da?

Plataformak, berez, ez du horren gaineko iritzirik. Baina, egia errateko, plataforman gauden guziak kontrakoak gara. Plataformak eskatzen duena da honelako gai batean hiritar guzietatik parte hartzea. Erreferenduma egiten bada, orduan agertuko gure iritzia.

#### ■ Eta zuk zer nolako iritzia duzu?

Argi dago aparkalekuak behar direla. Baina beste nonbaiten jar daitezke. Badira horretarako proiektuak. Hiriaren bihotzean aparkalekua jarriz gero, trafikoa haraino joateko beharra sortuko da betiko. Eta hemendik hamar urtera, Europako hiri handietan egiten ari diren gisara, erdialde historiko oinezkoentzako jarri nahi badute? European damutzen hasiak dira erdialdeetan lur azpiko aparkalekuak egin izanaz.

→ Asier Azpilikueta





## Nafar Kronika

Gontzal Agote

### Eta orain egunerokoari

L ARUNBATEKOAREN OSTEAN BOLADA BATERAKO sikiera pilak kargatuta izanen ditugu euskaldunok. Horrelako jendetza, gure oinarrizko eskubideen defentsan ikustea ez da batere makala, eta berriro ere gure hizkuntzaren aldeko apustua gizartean sendo errotuta dagoela erakutsi du.

Hauxe litzateke alderik positiboena, oso bestelakoa izanen baita agintaritzaren politika dutenek eskari honi emanen dioten erantzuna, baita honen ekinbidea leialtasun osoz sustatzen duen beste horiena ere. Lerrotxo hauek idazteko orduan oraindik gertatu ez bada ere, ez litzateke harrizkoa presidente jaunak haiek ez dakit zenbat mila botoemaile dituztela berriro ere botatzea. Eta kitto, ni naiz demokrazia, hurrengo galdera.

Baina alde horretatik zerbaiten zain egoitea bezain zentzugabea izanen litzateke irtenbidea momentu jakin bateko mobilizazio ahalmenaren eskuetan uztea. Eta honela euskaldunok beste aldera begira jarri, afera gizon-emakume gaizto batzuek diseinatu dutela eta horren kontra deus gutti egin ahal dela argudiatuz. Errazegia litzateke.

Nire uste apalean euskararen normalizazioa eta gure hizkuntza eskubideen errespetua ez da etorriko gorroto eta ezjakintasunagatik mugitzen diren horiek haien akatsaz oharitzen direnean. Halakorik ez da gertatuko. Bideak bestelakoa beharko luke izan, eta norberaren, banaka zein taldeka, eguneroko lana du ardatz nagusia. Jakina hau ez dela mobilizazio handi bat bezain ikusgarria, ordubeteko beharra eta gero poteatzera, baina fruiturik goxoenak nonbaitetik jaso behar baditugu, hortik izanen da.

Horretarako konbentzimendua eta gogoia behar da, deus gutti gehiago. Eguneroko egiten ditugun gauzarik txikiak errepasatzea ez da modurik txarrena hainbat ideia izateko. Zaharrak berri izanen dira askorentzat idatzi ditudanak, baina ez dago soberan ezaguna dena noizean behin errepikatzea.

## gure aukerak

### ZINEMA

► **Iruñea:** Karrikirik antolatu zinemaldiaren baitan, gaur, Murielen ezkontza filma eta Securitangor film laburra pantailaratuko dituzte, 20:00etan, Golem Baiona zinematokietan.

### LEHIAKETAK

► **Elizondo:** Baztandarren Biltzarraren iragartzeko kartel lehiaketa bihar bukatuko da. Kartelean honako testu honek agertu beharko du: Baztandarren Biltzarraren 01. Elizondon, uztailearen 22an. Eskuarak batzen gaitu. Kartelaren neurria 50x70 zentimetrokoa izanen da, gehien jota. Offset sistemak onartzen dituen teknika eta kolore guztiak erabili daitezke. Irabazleak 50.000 pezeta (2.000 libera) eskuratuko ditu. Lanak honako helbidean eman behar dira: Baztandarren Biltzarraren Elkarrekin, 22 PK, 31700, Elizondo.

### KORRIKA KULTURALA

► **Bera:** Korrika bertso-trama, bihar Kultur Etxean, arratsaldeko 20:00etan. Xabier Silveira, Unai Iturriaga, Aritz Lopategi eta Aitor Sarriegi ariko dira bertsoetan. Tramagilea Karlos Aizpurua izanen da.

► **Iruñea:** Martxoaren 9an Leihotikan taldearen kontzertua, San Fermin peñan, Arrosadian (Iruñea), 23:30ean.

### IKASTAROAK

► **Iruñea:** Gazteriaren etxean, Astrologia ikastaroa 14 eta 30 urte bitartekoentzat, martxoaren 3tik aurrera; 5etik aurrera, Flamenko eta Masajea (goi maila) ikastaroak; 6tik aurrera, Areto Dantza, Yoga, Aerobik-a, Lore Lehorrak eta Margoketa ikastaroak (denak hastapen mailako-

ak). Matrikulak 3.600 pezeta balio du.

### MUSIKA

► **Iruñea: Mutiloabeiti:** San Pedro Elizan, Ganbera Musikako kontzertua, igandean, 13:00etan, Plazatik Salarat taldearekin. Sarrera doan da.

► **Eugi:** Iketza tabernan, Anorexia rock taldearen kontzertua, bihar 01:00etan

### ANTZERKIA

► **Zizur Nagusia:** Kultur etxean, gaur eta bihar, Los ladrones so-

mos gente honrada, Talo taldearekin; martxoaren 9an, Titeres de la luna, La traperaren taldearekin; martxoaren 30ean, No te bebas el agua, Teatro Iluna taldearekin. Ostiraleko saioak 22:00etan izanen dira, larunbeteak 20:00etan. Sarrerak 800 pezeta balio du, baina gazte txartelarekin %50eko beherapena izanen da.

### BESTELAKOAK

► **Iruñea:** Hil bakoitzaren lehen larunbatean, Arkakusoen Azoka Ttikia eginen dute, goizeko hamarretatik aurrera, San Jose

plazan. Bertan, antigoaleko eta bigarren eskuko objektuak saldu edo trukatzeko ahal dira.

► **Mutiloagoiti:** Aranguren Ibarreko Kultur Etxeko auditorioan, Eguzki Plazan, Emakume Langilearen Nazioarteko egunean, Café con versos antzerkiratutako poesia. Martxoaren 8an, arratsaldeko 18:00etan.

► **Zangoza:** Haurrendako sormen lantegia, bihar hasi eta ekainaren 16a arte, larunbatetan 10:30etik 13:30era, Kultur Etxeko Plastika Ekitaldi Aretoan. 7 urtetatik 11ra, matrikulak 6.000 pezeta balio du.

• MIKEL SAIZ



### Mani-festa

Larunbatean jai giroa zen nagusi Iruñeko kaleetan. Oinarriak taldeak eta Nafarroako hainbat alkatek deitu manifestazio jendetsuaren leloa mani-festa zen, euskararen aldeko lana festa giroan egin asmoz.

Baina ez zen horregatik bakarrik. Izan ere, otsailean urtero dauzkagu bereziki alaiak eta koloretsuak diren jaiak: inork ez ditu inauteriak galdu nahi, ezta urtean behin gure aurpegiak maskara baten atzetan ezkutatu eta moztortzeko dugun aukera ezin hobea ere. Hori dela eta, manifestazioa ere inauteri giro jantzi zuen jende asko hurbildu zen Golem zinematokietara, eta ez pentsa haurrak bakarrik zirenik.

Euskararen aldeko aldarrikapenari halako xarma eta jai giro berezia eman zioten. Izan ere, euskarak merezi du, eta ospatzeko arrazoia beharko luke izan beti.